

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

239/2021 Foru Agindua, irailaren 9koa, zeinaren bidez interes publikoa adierazten baitzaio, Zabalateko 62-2-60 lurzatian, Zambranako lurzoru urbanizaezinean, zizare hazkuntzako ustiategi instalatzeko proiektuari

Humus Añana SLk Zambranako Udalari hirigintzako jarduera lizentzia eskatu dio zizare hazkuntzako ustiategi bat instalatzeko 62-2-60 lurzatian, Zabalateko herriaren inguruetan, udalerririk horretako lurzoru urbanizaezinean.

Zambranako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Sustatzaileak aurkeztutako proiektuaren arabera, egiteko den jarduera honetan datza: zizare hazkuntzako ustiapen intentsiboaren bidez, abeltzaintzako eta nekazaritzako hondakin organikoak maneatzeko bermikonposta (*zizare humusa*) egiteko eta merkaturatzeko, lurzoruak lehengoratzeko ongarri organiko moduan, baita beste azpiproduktu batzuk ere, hala nola substratua, zizareak eta konposta egiteko aholkularitza. Zizare hazkuntzako teknologiak zizare espezie domestikatu bat erabiltzen du (*Eisenia foetida*), haren digestioaren bidez materia organikoa prozesatzeko eta makro- eta mikromantengaien konposatu konplexu bat sortzeko.

Ustiatagia 1-62-2960 katastro erreferentzia daukan finkaren zati batean ezartzeko asmoa dago, 4.920 metro koadroko lur eremu bat okupatuz. Instalazioak metro bateko altuerako hesi bat edukiko du, 1,5 metroko garaierako egurrezko hesolekin eta burdin hari arantzadunarekin, basurdeei hara sartzea galarazteko. Itxituraren perimetroa 236 metrokoa izango da, eta bermikonpostaje instalazioaren neurriak urtean 480 metro kubo simaur maneatzeko modukoak izango dira. Horrek esan nahi du urtean ia-ia 384 tona simaur. Lurzorua belarrez estaliko da, eta aspertsiozko ureztapen sistema bat diseinatu da. Proiektuan jasotzen da ustiategiak elkartearen baimena daukala ura erabiltzeko.

Udaleko arkitektoak egindako txostenean, adierazten da lurzattia lurzoru urbanizaezinean dagoela, 13 zonan (SNU Nekazaritza zona) eta partez 10 zonan (SNU Erabilera mugatuko nekazaritza eremua, substratu ahularekin), eta, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioetako 118. artikulua arabera, zona horretan baimendutako erabilerean artean onura publiko eta gizarte intereseko instalazio eta azpiegiturak daude, baldin eta landa ingurunean kokatu behar badira beren izaerarengatik lurrari lotuta egon behar duten jarduerak egiten dituztelako.

Era berean, badago beste txosten bat, udaleko ingurumen teknikariarena, 2021eko martxoaren 31koa. Txosten horretan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2020ko urriaren 28an igorritako idazkia transkribatzen da, zeinean ondorioztatzen baita ezen, aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, jarduerak ez duela baimenik behar Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen 22/2011 Legearen esparruan eta, hortaz, ez dela sartzen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren 21/2013 Legearen II. eranskineko 9-b taldeko epigrafean.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. 2021eko uztailaren 27an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritza dela ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez erabakitzeko organo eskuduna, indarrean dagoen araudiaren eta proiektuaren tipologiaren arabera, eta goian aipatutako Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren txostenaren edukiri lotzen zaio.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sail horren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestuta eta landa egoeran da-goen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizazinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru aldundiaren ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

206/2021 Foru Aginduaren bidez xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta jendaurrean jartzeko 20 eguneko epea hastea ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera (argitalpena abuztuaren 6an egin zen, 88 zenbakian). Horretarako emandako epearen barruan ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Proiektuaren interes publikoari dagokionez, egin nahi den jarduera honetan datza, nagusi: zizare hazkuntzako ustiategi intentsiboa abian jartzea, bermikonposta edo zizare humusa egiteko eta merkaturatzeko, zeina baita ongari organikoa, baldintza mesofiloetan zizareen eta mikroorganismoen baterako ekintzari esker materia organikoa deskonposatzetik sortzen dena.0} Nutriente iturria da gehitzen zaien substratuentzat, eta haien ezaugarri fisikoak hobetzen ditu, hazkuntza sustatzen du, erneketa bizitzen du eta gaixotasunak agertzea eragozten du, ura atxikitze gaitasuna areagotzen du, drainatzea hobetzen du, nutrienteak gehitzen ditu eta lurreko organismoen hazkuntza bultzatzen du.

Nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinak tratatzeko aukeren artean, bermikonpostajeaz zuzenean aplikatzen dira ekonomia zirkularraren printzipioak; ingurumena errespetatzen duen nekazaritzaren kontzeptuan txertatzen da, eta hondakin organikoak balioesten dira, ongari gisa erabiltzeko.

Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala aplikatu behar da. Plan horren 28. artikuluan aipatzen dira nekazaritza erabilerak, lehen sektoreko baliabideen aprobeixamenduari loturiko jardueren eta lurzoruen erabileren arloan. Kontzeptu horren barruan sartzen dira bai aire zabaleko nekazaritza jarduerak bai estalpean egiten direnak, eta azken horretan biltzen dira nekazaritza ustiapenaren jarduera osagarriak egiteko diren instalazioak eta eraikuntzak. 28. artikuluko horren e) apartatuan jasotzen da zizare hazkuntza, nekazaritza jarduera berezien artean.

Halaber, Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala honako hau xedatzen du III. kapituluko 5. atalaren (“Lurzoruaren erabilerak eta eraikuntza erabilerei lotutako jarduerak”) 42. artikuluan: “Onura publikoko edo gizarte intereseko eraikin eta instalazioak.

1. Komunitate-ekipamendu publiko edo pribatuarentako eraikuntzak eta instalazioak: ematen dituzten zerbitzuak, beren izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez landa ingurunean kokatu behar dira, betiere aurrez erabilgarritasun publikoa edo gizarte interesa dutela adierazi bada.”

Udalerriko arau subsidiarioek 118. artikuluan xedatzen dutenaren arabera, 13 zonan (SNU Nekazaritza zona) eta 10 zonan (SNU Erabilera mugatuko nekazaritza eremua, substratu ahularekin) baimenduta daude nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak eta jarduerak, bai eta landa lurzoruan kokatu behar diren onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak ere.

Kasu zehatz honetan, azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan, proiektuan adierazten den bezala.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatuak proposatuta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularraren jardunean, haren titularraren gaixotasunagatik, eta diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa adieraztea Humus Añana SLk sustatutako proiektuari, zeina baita Zabalateko 62-2-60 lurzatian, Zambranako lurzoru urbanizaezinean, zizare hazkuntzako ustiategia jartzeko, bat etorritz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 9a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko jarduneko foru diputatua
M^a PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO